

GURE INGURUETAKO ALTXOR EZEZAGUN HORIEK

Joxe Ramon FERNANDEZ

Nahiz eta hemen presentatuko ditudan historiaurreko bi monumentuak Altxatik kanpo geratu (bata, Orereta barruan geratzen da eta besteak Orereta eta Astigarraga artean muga egiten bait du), ia ibilialdi osoa Altza barruan egin beharko dugu.

Batzuek "Aitzetako Txabala" deitutako trikuarria ezagutzen dute, baina nere ustez gutxiagok dira "Txoritokieta" jentilarría ezagutzen dutenak. Hau dela eta, gure arbasoen aztarna hauek bisitatzeko modua hemen azalduko dut.

Altzako enparantzatik emango diogu hasiera geure ibilialdiari. Ba, enparantza, eliz, frontoi eta udaletxea artean kokatua dago, ez dago galtzerik. Duela urte gutxi oso berriketa garrantzitsu bat sofritu du Altzako kaskoak: bola-toki bat ireiki zuten, probarri berri bat et frontoia lekuz aldatu zuten, handitu eta estali, baina batek baino gehiagok, herriminez agian, betiko frontoia gogoratzten dugu. Igande eguzkitsuen goizetan, bietako grada batean eseritak zuhaitz itzalpean.

Ba, esaten nuen bezala, Altzako enparantzatik aterako gara, "Lau Haizeta"-runtz abiatzen den errepeidea hartuz; errepeidea jeisten, berehala S. Isidro auzotik pasako gara eta gure ezkerrean "Martillun" izeneko taberna utziko dugu (lehen sagardotegia). Aurrerago autopista pasa beharko dugu, baina arriskurik gabe, noski! horretarako zubi dexente bat dugu gure zerbitzurako; zubia pasa bezain laister, "Etxeberri" baserria izango dugu gure ondoan; orain ez da jada hor inor bizi, animala batzuk ezik. Baserri aurrean, hau da, errepeide beste aldean, izugarrizko lizarrak ikusiko ditugu; lehen hortxe bazegoen beste baserri bat, "Miranda" izena zuen; alde berberan, pixkat aurreraxeago, beste zuhaitz multzo bat aurkituko dugu, horrek, beste baserri bat hor zegoela adierazten digu; beste baserri horrek, "Merkader" izena zuen.

Errepeidea pixka bat igotzen "Lau-Haizeta" baserri-tabernaraino iritsiko gara (100 m.) Hemen, eskuinaldera, Martutene eta Intxaurrendoruntz pista ateratzen da, baina guk hartu behar duguna ezkerrekoa da. "Lau-Haizeta"-tik oso gutxira, "Pelegriñene" baserri ondoan pasako gara.



PELEGRINIENE BASERRIA

Diotenez, Santiago de Compostela-runtz abiatzen zen bidea alde honetatik pasa izan zen eta baserri hau atsedeen-lekutzat erabiltzen zen. Eta horrela dirudi bere horma batean hareharrizko gurutze dexente bat ikus bait dezakegu.

Baserria oso zainduta dago; bere sarreran, udaberrian, mota guztietako lore mordoak ikusiko ditugu.

Gaur egun, Maria Arrieta eta Felix Odriozola bere seme-alabekin bizi dira.

Altzako S. Marzial parrokian oraindik konserbatzen den “Dela cofradia del Rosario del lugar de Alza” tituludun liburuan (1702 urtekoa) baserriaren izena transformazioa baieztatu dezakegu:

1703. urtean —Pelegriñarene deitzen zionten

1772. urtean —Pelerginarene

1802. urtean —Pelegriñene

1854. urtean —Pelegriñene

Baserrri famatu hau gure atzean utziz, bide ondoan beste batzuk aurkituko ditugu: Audaritz, Martitegi, Irazuene eta Amueder zikin hori. Aurreraxeago haitzurdin lantegi batetaraino iritsiko gara; nahiz eta Orereta barruan geratu, lehen hementxe zegoen baserriaren harresiak probetxatuz ireki zutela esango dugu; baserriaren izena “Putxueta” omen zen. Justu leku honetan bidea banatzen da: eskuinera “Menditxo”ra doa bidea, Astigarragaruntz jeisten beranduago eta ezkerrean (guk hartu behar duguna) S. Markos eta Txoritokieta aldera.

Aldapatxo bat igo eta gero pinudi aldamenetik pasako gara, gure eskuinean “Arkiri” base-
ria utziz. Hortik metro batzuetara bidea aldapatu egiten da; puntu honetara iristen, berriz, bide
gurutze batekin topatuko gara; bedozidor aldapatsu eta oso elkartu batzuk aukerako ditutu; al-
dapa gora, beste pinudi baten ondotik Txoritokietara doan pistara aterako gara. Puntu honetatik
oso hurbil dugu “Aitzetako Txabala” deitutako trikuarria; metro batzuk aurreraxeago belardi bat
gure ezkerrean ikusiko dugu, aldapa beheara jeisten “Aitzondo” baserriruntz baso batetaraino iri-
siko gara burdinari inguratuta eta horra-hor, baso ertzean, gure lehen helmuga.



“AITZETAKO TXABALA” TRIKUARRIA

Lau eta goikoarekin, bost harrik konpontzen dute trikuarria, bere norabidea 120° izanez. Kontserbaketa ona da, nahiz-eta inguruak “garrafoneroen” aztarnak agertu. Gaur egun “Aitzon-
do” baserrikoa da. 1962ko Otsailan J. Elosegui eta A. Leibarrek aurkitu zuten; 1963. urtean ber-
riz, J. M. de Barandiaranek ikertu zuen, bere adina 2800-2300 urte izan daiteke ikerlarien ustez.

Gure bigarren helmugaraino iristeko ez dugu denbora luzerik ibili behar; basotik atera-
tzen eta lehen jeitsi dugun aldapa igotzen, berriz pistara aterako gara eta justu pistatik igo baino
lehen, ezkerrean ere bai, beste bidezidor bat ateratzen da (Astigarragako Bentetan bukatzen de-
la) ba, bidezidorra hartuko dugu eta oso minutu gutxi ibili eta gero bidea utziko dugu, gure es-
kuinean dagoen aldapa igotzen, segituan, jentilarria ikusiko dugu.

Txoritokieta mendiko hegosaldean kokatua dago, gailurretik berrehun metrotara; lurre-
tik 160zm. altxatzen da, 95 zm. bere zabalera eta 25 zm. bere lodiera izanez (g.g.b.). Hareharriz
konposatua dago; bere hego aurpegian 35x35 zentimetrotako gurutze bat grabatuta du. 1981ko
Otsailoaren hamabostean L. Millanek aurkitu zuen. Aipatzekoa da jentilari hau hariharri triasi-
kazkoa konposatua dagoela eta mota horietako harririk hurbilenak Igoien mendiaren hegalean
aurkituko dugu, hau da, ordu bete oinez.

